



Espediente zk./Nº Expediente: 2021IGOB0008

Gaia/Asunto: 2021/09/07 Ohiko Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local Ordinaria 2021/09/07

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

**Tokiko Gobernu Batzarra 2021eko irailaren 07an
eginiko ohiko bilkura telematikoari dagokion akta.**

2021eko irailaren 7ko 09:15ak zirela, modu telematikoan (martxoaren 31ko 11/2020 EDLk 7/1985 Legeko 46. artikuluan sortutako 3. atal berriak xedatutakoaren baitan), lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira, guztiak espainiar lurraldean kokatuak:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Itziar Ostolaza Galdos (EH Bildu Orereta/Errenteria).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

1. 2021eko uztailaren 7an eginiko ezohiko bilkura telematikoari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada. (2021IGOB0007)

Oharririk gabe onartu da.

**Acta de la sesión telemática ordinaria de Junta de
Gobierno Local celebrada el día 07 de septiembre
de 2021.**

Siendo las 09:15 horas del día 7 de septiembre de 2021, en sesión telemática (de acuerdo con lo dispuesto en el nuevo apartado 3 del art. 46 de la Ley 7/1985 introducido por la Disposición Final 2ª del Real Decreto Ley 11/ 2020 de 31 de marzo), se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejales y Concejales radicados en territorio español:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

Elkarrekin Errenteria

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

No asiste excusando su inasistencia, Itziar Ostolaza Galdos (EH Bildu Orereta/Errenteria).

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Extraordinaria Telemática del 7 de julio de 2021. (2021IGOB0007)

Se aprueba sin observación alguna.



2. Beraunen ur-hornidura sarearen zati batzuk berritzeko egin beharreko lanak esleitzea. (2021OLAN0004)

AURREKARIAK

2021eko ekainaren 8ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen “Beraunen ur-hornidura sarearen zati batzuk berritzeko egin beharreko lanak” kontratatzeko, prozedura Irekiaren bidez.

Baliozko epean bi (2) proposamen aurkeztu dira eta hauek dira: “OBRAS HIDRÁULICAS ORTEGA, S.L.U.” eta “SINZATEC CANALIZACIONES, S.L.”.

2021eko uztailaren 12an Kontratazio Mahaiak proposatu zuen Jorge Lamazares Arrizabalo Jauna “SINZATEC CANALIZACIONES, S.L.”-ren ordezkari gisa, adjudikazio-hartzaile izatea, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, hamar (10) asteko exekuzio epearekin eta 170.822,52 euroko prezioarekin (%21 BEZa barne).

Proposatutako adjudikazio-hartzaileari eskatu zaio, hamar (10) laneguneko epean, hainbat dokumentazio aurkeztea, baita behin betiko bermea ezartzea ere; hain zuzen ere, 7.058,78 eurotako bermea.

Interesatutako enpresak eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita behin betiko bermea ere.

Udal Kontuhartzale ordeak fiskalizazio txostena egin du.

ZUZENBIDE OINARRIAK

- Sektore Pulikoko Kontratuaren Legea (9/2017 Legea, azaroaren 9koa)

2. Adjudicación de Obras correspondientes a la renovación de varios tramos de la red de abastecimiento de agua en Beraun. (2021OLAN0004)

ANTECEDENTES

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 8 de junio de 2021 se incoó expediente para la contratación de las “Obras correspondientes a la renovación de varios tramos de la red de abastecimiento de agua en Beraun”, mediante procedimiento Abierto.

Visto que en plazo hábil se han presentado dos (2) proposiciones correspondientes a “OBRAS HIDRÁULICAS ORTEGA, S.L.U.” y “SINZATEC CANALIZACIONES, S.L.”.

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 12 de julio de 2021, proponiendo como adjudicatario a D. Jorge Lamazares Arrizabalo, en representación de “SINZATEC CANALIZACIONES, S.L.”, al ser la más ventajosa para los intereses públicos, con un plazo de ejecución de diez (10) semanas y un precio de 170.822,52 euros (21% IVA incluido).

Visto que se ha requerido a la empresa adjudicataria propuesta, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportara diversa documentación así como que depositara una garantía definitiva por importe de 7.058,78 euros.

Visto que la empresa interesada ha aportado la documentación requerida y la garantía definitiva.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal acctal.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 9 de noviembre).



Horregatik guztiagatik, Kontratazioa eta Ondarea Azpisaileko Arduradunak emandako adostasunarekin eta Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, con la conformidad dada por el Responsable de Contratación y Patrimonio, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

1. ADJUDIKATZEA Jorge Lamazares Arrizabalo Jaunari "SINZATEC CANALIZACIONES, S.L."-ren ordezkari gisa (IFK: B20939062), "Beraunen ur-hornidura sarearen zati batzuk berritzeko egin beharreko lanak" gauzatzeko kontratua, hamar (10) asteko exekuzio epearekin eta 170.822,52 euroko prezioarekin (%21 BEZa barne). Hori guztia lizitazioa arautu duten Baldintza Administratibo eta Baldintza Teknikoen Agirietan jasotakoaren arabera, baita espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzaren arabera ere. (A-1797-2021)

1º.- ADJUDICAR a D Jorge Lamazares Arrizabalo, en representación de "SINZATEC CANALIZACIONES, S.L." (CIF: B20939062) el contrato para la ejecución de las "Obras correspondientes a la renovación de varios tramos de la red de abastecimiento de agua en Beraun", con un plazo de ejecución de diez (10) semanas y un precio de 170.822,52 euros (21% IVA incluido), de conformidad con los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente. (A-1797-2021).

Ondorio horietarako indarrean dagoen Eraikuntza eta Herrilan arloko Gipuzkoako Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko da.

A estos efectos, será de aplicación el Convenio Colectivo de la Construcción y Obras Públicas de Gipuzkoa.

2.- IZENDATZEA Kontratuaren Arduradun, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Errenteriako Ur Departamentuaren Arduraduna.

2º.- DESIGNAR al Encargado del Servicio de Aguas de Errenteria, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Responsable del Contrato.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 15 laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.

3º.- REQUERIR asimismo a la empresa adjudicataria para que en el plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, formalice electrónicamente el contrato en documento administrativo.

4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa Errenteriako Udalaren Kontratatzailearen Profilean, iragarki baten bidez.

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

3. Lankidetzaren hitzarmena onartzea, errenteriako

3. Aprobar el Convenio de Colaboración entre el



udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren artekoa, Arditurriko Bide Berdearen Korridore Ekoturistikoari buruz. (2021ZHIT0010)

Ayuntamiento de Errenteria y el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco relativo al Corredor Ecoturístico de la Via Verde de Arditurri. (2021ZHIT0010)

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

BAT: 2020ko azaroaren 3an, Euskadiko Gobernu Kontseiluak **BERPIZTU programa** onartu zuen (Euskadiko ekonomia eta enplegua sustatzeko 2020-2024 programa).

UNO: El 3 de noviembre de 2020 el Consejo de Gobierno de Euskadi aprobó el **programa BERPIZTU** (Programa para la reactivación económica y el empleo de Euskadi 2020-2024).

2021eko martxoaren 10ean onartu zen “**behar handieneko eskualdeak edo Lehentasunez Jarduteko Eremuak(LJE) berrabiarazteko Plan Berezia** “

El 10 de marzo de 2021 fue aprobado el “**Plan especial para el relanzamiento de comarcas desfavorecidas o Zonas de Actuación Preferente (ZAPS)**”.

BI: “Behar handieneko eskualdeak edo lehentasunez jarduteko eremuak Berrabiarazteko Planak” **proiektu traktore** batzuk egitea aurrakusi du. Bere aplikazio guneak Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri eta Oarsoaldea eskualdeak barneratu ditu eta inbertsio-jarduera zehatzak jaso ditu (2021-2022aldian gauzatu beharrekoak).

DOS: El “Plan de Relanzamiento de Comarcas Desfavorecidas o ZAPS”, prevé la realización de un conjunto de **proyectos tractores**. Su ámbito de aplicación abarca las comarcas de Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri y Oarsoaldea, y plantea actuaciones concretas de inversión (a ejecutar en el en el periodo 2021-2022).

HIRU: Proiektu traktoreen artean, hain zuzen ere, **Oarsoaldean** honakoa ageri da: "ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA". Bere helburua ondare industrial sustatzea da, eskualdeko kultura-turismoaren ezaugarri bereizle gisa.

TRES: Dentro de los proyectos tractores, de hecho, **en Oarsoaldea** se encuentra el “CORREDOR ECOTURISTICO VIA VERDE DE ARDITURRI” . Su finalidad es el fomento del patrimonio industrial como característica diferenciadora del turismo-cultural de la Comarca.

LAU: 2020ko azaroaren 3an, Euskadiko Gobernu Kontseiluak BERPIZTU programa onartzearekin batera, ontzat eman zuen Errenteriako Udalarekin lankidetzat hitzarmena izenpetzea "ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA" diruz laguntzeko edo finantziatzeko.

CUATRO: El 3 de noviembre de 2020 el Consejo de Gobierno de Euskadi aprobó junto con el programa BERPIZTU el convenio de cooperación a suscribir con el Ayuntamiento de Errenteria a fin de subvencionar o financiar el “CORREDOR ECOTURISTICO VIA VERDE DE ARDITURRI”.

ZUZENBIDE OINARRIAK

LEGISLACIÓN APLICABLE

-Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen

-Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Ad-



Administrazio Prozedura Erkidearena.

ministrativo Común de las Administraciones Pública

-Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

-Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

-Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea.

-Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

-Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.

-Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

-Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa (8.1.b) artikulua).

-Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (art. 8.1.b).

ZUZENBIDE OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Hitzamenaren objektua eta helburuak:

Objeto y objetivos del Convenio:

Hitzarmen honen objektua eta helburuak ondorengoak dira:

El objeto y los fines del presente Convenio son los siguientes:

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaz esparru bat ezartzea Eusko Jaurlaritzaren eta Errenteriako Udalaren artean, Eusko Jaurlaritzak Errenteriako Udalari zuzeneko diru laguntza emateko 2021 urtean inbertsio hau burutu ahal izateko: "ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOA"

El objeto del convenio es establecer un marco de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Errenteria en orden a regular las condiciones de la concesión directa de una subvención por el Gobierno Vasco al Ayuntamiento de Errenteria que permita la ejecución durante el año 2021 de la siguiente inversión: "CORREDOR ECOTURISTICO VIA VERDE DE ARDITURRI".

Helburu nagusia zera da: Oarsoaldearen baitan, Errenteriako udalerrirako, "Behar handieneko eskualdeak berrabiarazteko Planak" aurrikusitako aktibo turistikoak hobetzea.

El objetivo principal es mejorar los activos turísticos previstos en el "Plan de Reactivación de las comarcas más necesitadas" para el municipio de Errenteria, dentro de Oarsoaldea.

Xede berezia honakoa da: oinezkoentzako bizikleta-ardatz bat indartzea, eskualdeko bisitari zein biztanleentzat erakargarri.

El objetivo especial es potenciar un eje ciclista peatonal, atractivo tanto para los visitantes como para los habitantes de la comarca.

Asmo zehatza hau da: Errenteriako tartean Arditurriko enbor nagusia edo bide berdea lehengo egoerara itzultzea edo leheneratzea.

La intención concreta es devolver o restaurar el tronco principal o vía verde de Arditurri en el tramo de Errenteria a su estado anterior.



Jarduera kontratatzea, gauzatzea, lanen zuzendaritzako laguntza teknikoa, segurtasun eta osasun koordinazioa eta jardueraren jarraipena egitea, Errenteriako Udalari dagokio.

La responsabilidad en la contratación, ejecución, asistencia técnica de la dirección de las obras y la coordinación de la seguridad y la salud y en el seguimiento de la acción corresponderá al Ayuntamiento de Errenteria.

Konpromisoak

BATETIK, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak_konpromisoa hartu du 2021 urtean 290.000 euroko zenbatekoa transferitzeko.

BESTETIK, Errenteriako Udalak ondorengo konpromiso orokor eta zehatzak hartu ditu:

Konpromiso orokorrak

- 1.- Jasotako diru funtsa hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko eta garatzeko gastuei aplikatzea.
- 2.-Proiektua epe barruan gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak bideratzea.
- 3.-Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari batetik, jarduketan eta transferitutako funtsen gauzatze-egoeraren jarraipena egiteko informazioa bidaltzea eta bestetik, hitzarmeneko ekintza egin dela justifikatzea, eskatutako dokumentazioa igorritz.
- 4.-Jarduera horiek Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren finantzaketarekin egin direla iragaritzea.
- 5.-Errenteriako Udalak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 azpikontratatu ahal izango du, gehienez ere, osorik edo partzialki. Halaber, kontratazioak dirulaguntzaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa

Compromisos

POR UN LADO, El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco se compromete a transferir en el año 2021 la cuantía de 290.000 euros.

POR OTRO LADO, el Ayuntamiento de Errenteria asume los siguientes compromisos generales y concretos:

Compromisos generales

- 1.-Aplicar los fondos recibidos a los gastos correspondientes a la ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio.
- 2.-Destinar los recursos humanos y materiales necesarios para cumplir los plazos de ejecución.
- 3.-Remitir al Departamento de Turismo, Comercio y Consumo por un lado, la información para el seguimiento de las actuaciones y del estado de ejecución de los fondos transferidos y por otro lado, justificar la realización de las actuaciones del convenio mediante la documentación requerida.
- 4.-Dar publicidad de que dichas actuaciones se realizan con la financiación por parte del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo de Gobierno Vasco.
- 5.-El Ayuntamiento de Errenteria podrá subcontratar, total o parcialmente, las actividades en un máximo del 100% del importe de la actividad subvencionada. Asimismo, cuando la contratación exceda del 20% de la subvención y dicho importe sea superior a



bada, Eusko Jauriaritzako alde zurretik baimendu beharko du kontratazioa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Kasu horietan, Turismo eta Merkataritzako sailburuordeak baimena emango du diruz lagundutako jarduera xede duten kontratu horiek egiteko.

60.000 euros, la contratación deberá autorizarse previamente por el Gobierno Vasco tal y como se indica en el artículo 29 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre. En estos casos, será la Dirección de Turismo y Hostelería quien concederá la autorización para la celebración de estos contratos que tengan por objeto la actividad subvencionada.

Konpromiso zehatzak: Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

Compromisos concretos: Plazo y forma de justificación de la subvención.

1.- **Ekitaldia amaitutakoan (2021eko abenduaren 31), eta beranduenez 2022ko martxoaren 31n,** Errenteriako Udalak honako **dokumentazio hau bidali beharko dio Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzari — diru-laguntza kudeatzen duen organoa —,** hitzartutako jarduerak behar bezala gauzatu direla justifikatzeko:

1.- **Finalizado el ejercicio (31 de diciembre de 2021), y no más tarde del 31 de marzo de 2022,** el Ayuntamiento de Errenteria **deberá de remitir a la Dirección de Turismo y Hostelería —órgano gestor de la subvención—** la siguiente documentación a fin de justificar la correcta ejecución de las actuaciones convenidas:

a) Hitzarmen honen xede diren ekintzei dagokienez, proposatutako helburua lortzeko lortutako betetze-maila jasotzen duen azalpen-memoria.

a) Memoria explicativa en la que se recoja el grado de cumplimiento alcanzado en relación con las acciones objeto del presente convenio de cara a conseguir el objetivo propuesto.

b) Esku hartze bakoitzari buruzko txostena.

b) Informe por cada actuación.

c) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:

c) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

- Gastuen zerrenda sailkatua, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

- Relación clasificada de gastos, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

- Zerrenda horri erantsiko zaizkio fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliobaliokidea duten dokumentuak, edo administratio-eraginkortasuna dutenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

- A dicha relación se incorporarán las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

- Hala badagokio, jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda xehatua.

- Relación detallada, en su caso, de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad.



d) Errenteriako Udaleko kontu-hartzailearen txostena, diruz lagundutako jarduketei dagozkien gastuak, aurreko laburpenean adierazitakoak, egiazkoak direla ziurtatzen dituenak.

d) Un informe de la interventora del Ayuntamiento de Errenteria en el que certifique la veracidad de los gastos realizados correspondientes a las actuaciones subvencionadas y reflejados en el resumen anterior.

Proiektuaren kontu-auditoretza emateak ez du salbuesten gastu- eta ordainketa-dokumentuak aurkeztetik.

La entrega del informe de cuentas del proyecto no exime de la presentación de los documentos de gasto y pago.

2.- Hedapen egokia justifikatzeko, Errenteriako Udalak justifikazioari erantsiko dio hitzarmen honen jarduketekin lotuta sortzen diren liburu, txosten, liburuxka, kartel edo bestelako dokumentazio bakoitzaren ale bat, edo, bestela, kopia bat euskarri fisiko edo magnetikoan, haren izaeraren edo bataren edo bestearen egokitasun handiagoaren edo txikiagoaren arabera.

2.- Para la justificación de la correcta difusión, el Ayuntamiento de Errenteria adjuntará en la justificación, un ejemplar de cada uno de los libros, informes, folletos, carteles u otro tipo de documentación, o bien copia en soporte físico o magnético, en función de la naturaleza del mismo, o de la mayor o menor idoneidad de uno u otro, que se generen en relación con las actuaciones del presente Convenio.

Hitzarmenaren iraupena eta indarraldia:

Hitzarmen hau bi aldeek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean, eta urtebetez egongo da indarrean, 12. klausulan adierazi denez. Hala ere, 2021ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira lanak. Hitzarmena aldatzeko erregimena hamaikagarren klausulan eta ez betetzearena hamargarren klausulan jasota daude.

Duración y vigencia del Convenio:

El presente Convenio entrará en vigor el día de su firma por ambas partes y su vigencia es de un año, conforme a la cláusula 12. Sin embargo, las obras deben finalizar para el 31 de diciembre de 2021. El régimen de modificación del convenio viene recogida en la cláusula once y el de incumplimientos en la cláusula décima.

Jarraipen Batzordea:

Hitzarmenaren seigarren klausulan egin zaio aipamena Koordinazio eta Jarraipen Batzorde Mistoari. Alderdi sinatzaileen ordezkari hauek osatuko dute:

a) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko titularrak izendatutako bi ordezkari; horietako bat presidentea izango da.

b) Errenteriako Udalak izendatutako bi ordezkari.

Comisión de seguimiento:

En la cláusula sexta del convenio se hace referencia a esta Comisión Mixta de Coordinación y Seguimiento, formada por las siguientes personas en representación de las partes firmantes:

a) Dos representantes designados por el titular del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, uno de los cuales ostentará la presidencia

b) Dos representantes designados por el Ayuntamiento de Errenteria



Jarraipen Batzordea bi hilean behin bilduko da, edo premiek hala eskatzen dutenean.

La Comisión de Seguimiento se reunirá bimestralmente o siempre que las necesidades así lo requieran.

Jarraipen Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen adituak eta teknikariak gonbidatu ahal izango ditu bileretara, aztertzen diren gaiei buruzko aholkularitza eman diezaioten Batzordeari.

La Comisión de Seguimiento podrá invitar a asistir a sus reuniones a personas expertas y técnicas que considere necesario con el fin de asesorar a la Comisión sobre los asuntos que se sometan a examen.

Finantziazio gastuak:

Gastos de financiación:

Lankidetzaz hizarmen honek ez dio inolako finantziario kosturik suposatzen Udalari, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza zuzena jasotzea baitu xede nagusi.

Este Convenio de Colaboración no supone ningún coste de financiación para el Ayuntamiento, pues su objeto principal consiste en recepcionar la subvención directa del Gobierno Vasco.

Txostenak

Informes

Ingurumen teknikariak eta aholkulari juridikoak txostena eman dute elkarrekin 2021eko abuztuan.

En agosto de 2021 el técnico de medioambiente y la asesora jurídica han emitido informe conjunto.

Udal Kontuhartzale ordeak fiskalizazio txostena egin du.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal acctal.

ERABAKI-PROPOSAMENA eta hirigintza-ingurumen aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna **IKUSITA**.

VISTA LA PROPUESTA DE ACUERDO y la conformidad dada por la asesora jurídica de urbanismo y medioambiente a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, Udal honetako Alkatezaz eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau, aho batez,

POR TODO ELLO, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ERABAKI DU:

ACUERDA:

1.- LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, ERRETERIAKO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN ARTEKOA, ARDITURRIKO BIDE BERDEAREN KORRIDORE EKOTURISTIKOARI BURUZ.

1.- APROBAR EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA Y EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO DEL GOBIERNO VASCO RELATIVO AL CORREDOR ECOTURISTICO DE LA VIA VERDE DE ARDITURRI.



2.-Alkatea ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, Lankidetzaren hitzarmen hori sinatu dezan, eta akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu behar diren egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak eman ditzan.

3.- Hitzarmena udal web gunean eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

4. ASOCIACION AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT, herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarten Udalen Erregistroan inskribatzeko eskaera. (2021IIGE0002)

AURREKARIAK

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarten udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribatuta egoteko baldintzak bete behar dira:

- 1.- Errenteriako udalerrian lankidetzaren lanak egitea.
- 2.- Eusko Jaularitzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkarten Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.
- 3.- elkarten zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritzaren, lan-profesional edo artistikoen zerikusirik ez izatea.

2021eko otsailaren 02an Alberto Velez Lekuona jaunak **ASOCIACION AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT** erakundea ordezkatzuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskararekin batera, erregelamenduak eskatutako

2. Facultar a la alcaldesa, en la medida que proceda en derecho, para la suscripción del Convenio de Colaboración, y para la ejecución de los actos y la entrega cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para que el presente acuerdo se haga efectivo.

3.- Publicación del Convenio en la página web municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

4. Solicitud de inscripción de la ASOCIACIÓN AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT en el registro municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro. (2021IIGE0002)

ANTECEDENTES

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

- 1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria.
- 2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.
- 3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 02 de febrero de 2021, Alberto Velez Lekuona en representación de la asociación **ASOCIACION AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT** solicita la inscripción en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación



agiriak aurkeztu zituen.

Kirol azpisaileko arduradunaren 2021eko uztailaren 27ko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat dator eta elkarte horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Kiroletako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Kiroletako arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau, aho batez,

ERABAKI DU:

1.- **ASOCIACION AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT**, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarleen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:35ak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2021eko irailaren 07a

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

requerida en el reglamento.

Visto el informe del responsable de la Subárea de Deportes, de fecha 27 de julio de 2021, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Deportes y la conformidad dada por el responsable de Deportes a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello en el ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA:

1.- Proceder a la inscripción de la asociación **ASOCIACION AIRSOFT ERRETERIA-AIRENT** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:35 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 07 de septiembre de 2021



Egiatzapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU0061265d-d1f6-4ffe-85ec-90b326b34e15**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiatzapen kode segurua egoitza elektronikokoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGOB0008-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)